Konturatu dira UGTko kideak ez dutela helburua lortu. Hori ikusirik, pizzeriara sartzea erabaki dute, soilik langileak sartu daitezkeen atetik. Berehala ateratzen dira, bertako arduradun batekin. Mugikorra eskuan dute; hamaika dei egiten dituzte, eta grebalariak grabatzeari ere ekiten diote. Ertzaintza berehala dator. Begi-bistakoa da eurek deitu dutela. Baimena dago eta grebalariak edozein grebatan egiten diren jarduerak egiten ari dira: esku-orriak banatu, kartelak jarri edo bozgorailu batekin euren egoera salatu. Ikusirik oinarrizko eskubide bat –greba eskubidea– gauzatzen ari direla eta euren jarduera guztia legearen baitan dagoela, errepeidearen bestaldera bueltatzen dira ertzainak.

Ilun dago jada, eta langileek protesta bertan behera uztea erabakitzentz dute. Borrokan jarraituko dute Domino's Pizzako langileak, helburua lortu arte: prekariatetarekin amaitzea eta lan baldintza duinak lortzea.





Mikel Noval

Gizarte politiken arduraduna

Urtero bezala, munduko zazpi herrialderik aberatsenetako gobernuak (Alemania, Kanada, Estatu Batuak, Frantzia, Italia, Japonia eta Erresuma Batua) bilduko dira, beren politikak nazioarteko mailan koordinatzeko. Aurtent Euskal Herrian bilduko dira, Biarritzen, abuztuaren 24tik 26ra.

G-7 delakoak urteroko bilkuretan duen helburua, mundu osoan eragingo duten neurri eta erabakien gaineko agenda ekonomiko-politikoa ezartzera da. Ildo horretatik orain arteko politika neoliberalak aplikatzeko jarraituko dute, nahiz eta ekarritako ondorioetako bat desberdintasuna inoiz ez bezala handitzea izan. G-7 delako esparru horrek ez du inolako zilegitasun demokratikorik horretarako, hala ere behin eta berriz saiatzen dira mundu osoa gidatzen, urteroko bilera horien bidez.

Arrazoi ugari ditugu G-7ri ezetz esateko. Izan ere, G-7k, FMI eta Munduko Bankuarekin batera, korporazio-boterea sustatzen du, giza eskubideen, ekonomiaren, gizartearen, kulturaren eta ingurumenaren gainetik. Zerbitzu publikoak merkantilizazio eta pribatizazioaren bidetik bultzatu nahi ditu; eta horretarako, merkataritzaitunak erabiltzen ditu (CETA —EBaren eta Kanadaren artekoa—, JEFTA

G-7ri EZ; eraldaketa sozial, ekologiko, feminista eta demokratikoari BAI

—Japoniaren eta EBaren arteko,—, edo TTIP —Estatu Batuen eta EBaren artean negoziatzen ari dena—).

Lanaren eta gizarte-politiken arloan, murrizketa-agendari eutsi nahi diote, prekarietatea herritarren enplegutara eta bizimoduetara are gehiago hedatuz. Politika horiek, gainera, genero-lerratze nabaria dute, emakumeak dikriminatzen baitituzte, bai enpleguan, bai gizartean, bizitzaren iraupenerako funtsezkoa den zainketa-lana ezkutatzu eta baliogabetuz.

Eta zer esan migrazio-politikei buruz? Biarritzen bilduko diren gobernuek zuzeneko erantzukizuna dute pertsona migratzileen eskubideen urraketan, dela Europan, dela Amerikan. Politika horiek lotsagarriak dira, eta guk aurre egiten diegu. Hala egin genuen, esate baterako, maiatzaren 5ean, Durangon, Herrien arteko Besarkadaren nazioarteko ekimenaren barruan.

Gainera, G-7ak eta gobernuak ez dute konpromiso zehatzik hartuko, nazioarteko zientzia-komunitatearen

deiari erantzuteko. Gure planetaren etorkizunerako mehatxu den klima-krisia onbideratzeko, behar-beharrezko da politiketan erabateko eta berehalako aldaketak egitea, hala diote behintzat mundu osoko zientzialariek.

Aipatu beharrekoak dira, halaber, horrelako gailurren inguruan ezarri ohi diren errepresio-politikak. Bilkura hori halako uharte batean bezala egin nahi dute, inguruko mundutik aparte. Horregatik debekatu dituzte manifestazioak egun horietan, eta baita aurreko asteetan ere. Horretan agintekeriaren eta lerratze antidemokratikoaren adibide garbia dugu.

Horren aurrean ELAk G-7ko gailurra gaitzesten du, eta bide batez gogoratzen du beharrezko dela ekonomian eraldaketa sozial, ekologiko, feminista eta demokratikoa garatzea. Baino horretarako, orain arte aplikatu diren politiketan erabateko aldaketa egin behar da, eta bizitzaren eta planetaren iraunkortasuna erdigunean jarri. ■

ERREDAKZIO TALDEA

Zuzendaria: Iván Giménez.

Koordinatzailea: Gorka Quevedo.

Lan taldea: Nerea Ispizua, Haimar Kortabarria, Xabier Harlouzet, Ainhara Plazaola, Unai Oñederra, Lander Zabalaeta.

Itzulpen lanak: Bixen Fernández Amezaga.

Argitarazle: ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00

www.elaeus · landeia@elaeus

**En Sanfermines
tus derechos
no se van
de fiesta**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



**Ostalaritzan
esplotaziorik EZ !!**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

La empresa Joaquin Bereciartua de Legazpi tendrá que indemnizar con 170.000 a la familia de Fernando Castaño Rodriguez, fallecido por un cáncer de pulmón derivado de la exposición al polvo de sílice

170.000 euro silikosiak jota hiltzearen truke

Silizeak eragindako birika-minbiziak jota hildako langile baten familiari kalte-ordaina eman beharko dio Joaquin Bereciartua enpresak

> Landeia

Legazpiko Joaquin Bereciartua enpresak 170.000 euro eman beharko dizkio Fernando Castaño Rodriguezen familiari. Hala erabaki du Lan-arloko Eibarko Epaitegiak. Epaiaik frogatutatz ematen duenez, Castaño Rodriguezi heriotza eragin zion birika-minbizia lanbide-gaixotasunaren ondoriozkoia izan zen.

Epaitegiko adiskidetze-ekitaldian lortutako akordioarekin amaiera eman zaio prozedura judizialari. Enpresak Castaño Rodriguezen heriotzan izandako erantzukizun zibila onartu zuen, sententziak frogatzen duenez silize-hautsarekiko esposizioan luzaroan egotearen ondorioz birika-minbiziaz hil zelako.

Fernando Castaño Rodriguez errotaria zen, eta 1979. urtean hasi zen Joaquin Bereciartuan lanean. Denbora honetan silize-hautsarekiko

esposizioan egon zen, onargarri diren mailetatik gora. Horrek eragin zion birika-gaixotasuna. Zoritzarrez berea ez da gisa honetako kasu bakarra; ehunka dira urtero lanean eragindako gaixotasunen ondorioz Euskal Herrian hiltzen diren langileak. Hala ere, epaieren irakurketak heldu beharreko hainbat puntu jorratzen ditu.

Irregulartasun eta arduragabekeria larriak. Enpresak oso irregulartasun larriak egin zituen denboran zehar. Segurtasun-neurririk eza enpresa horren eguneroko ohitura izan da. Hainbat langilek silikosi-diagnostikoa zuten 2010. urteaz gerontik; hala ere, enpresak ez zien jaramonik egin Osalan-en gomendioei. Osalanek argi utzi zituen segurtasun-gabezia nabarmenak eta lazgarriak zeudela, eta ezin onartuzko arrisku-mailak gutxitzeko berehalako neurriak hartu beharra zegoela.

Langileei gaitzespena. Onartezinak izan dira akordio judiziala dela-eta enpresak egindako gaitzespen etengabeak. Enpresaren segurtasun-neurririk ezagatik hildako bat tartean dagoela, harrigarria da beraien kezka-iturria ELA izatea, prebentzio-neurriak hartzea izan beharrean, horrelako gertaera tamalgarririk errepika ez dadin.

Lan-ezbeharren aurkako borroka. ELAK agertu nahi du bere konpromiso sendoa lan-ezbeharren aurkako borrokarekin. Borroka hori ezin da mugatu asmo oneko adierazpenak egitera edo eraginkortasun gutxiko zabalkunde-kanpainak egitera. Administrazio publikoek eta elkargo patronalek lan-osasuna jarri behar dute beren agenda estrategikoen erdigunean, gehiago luzatu gabe, lan-segurtasun eta osasunaren arloko lege-aginduak bene-benetan betetzeko, kampora begirako itxurak egin gabe. ■

“NADA NOS VA A DEVOLVER A NUESTRO PADRE”

Xabier Castaño Garcés (Legazpi, 1985) es hijo de Fernando Castaño Rodríguez. Cuando en 2017 falleció su padre Xabier comenzó una lucha para lograr justicia y reparación, no solo para Fernando, sino para todos los trabajadores y trabajadoras que estén o hayan estado expuestos a sustancias tóxicas. El testimonio de Xabier fue uno de los que se pudo escuchar en los actos que ELA celebró con motivo del Día Internacional de la Seguridad y Salud Laboral. (El video se puede ver en el canal de YouTube de ELA).

“La silicosis entró en nuestras vidas en 2010, que es cuando mi padre fue junto a un compañero de trabajo a Avilés (Asturias) para hacerse unas pruebas médicas. Ahí le dijeron por primera vez que estaba enfermo de silicosis. En 2017 empeoró su situación. Comenzó a tener graves problemas respiratorios, se sofocaba mucho más de lo normal. Le hicieron unas pruebas en el hospital y le detectaron un nódulo en el pulmón. A raíz de ahí le detectaron el cáncer. Cuando nos dieron la noticia fue muy duro. Sentimos mucho miedo. Al final era algo desconocido para nosotros. Acogimos la noticia con prevención, pero sabiendo que era algo grave, aunque siempre mantienes la esperanza, claro.

Mi padre se dedicaba a hacer moldes, estaba más expuesto que el resto de compañeros al sílice. Al caer el polvo y todo lo que quedaba en el aire, lo tragaba. Nosotros teníamos claro desde el principio que el motivo de que desarrollara el tumor era la silicosis. Fernando comenzó a trabajar con 14 años. No es difícil imaginar la cantidad de sílice que pudo tragar durante todos esos años. Estaba todo el día en contacto con el sílice, y si la silicosis viene de la sílice, pues, estaba claro...

Nuestro padre ya no está, pero hemos peleado en su nombre. Nunca hemos pretendido una indemnización, porque no hay ninguna compensación que nos lo devuelva. Tenemos la satisfacción de haber sentido el reconocimiento de los compañeros de trabajo, cosa que no podemos decir por parte de la empresa. No hemos recibido

ninguna ayuda en ningún momento, y la verdad es que tampoco la queremos. Tratar con ellos ha sido difícil, porque nunca han querido reconocer que estábamos ante un problema derivado de la sílice. Ni nos han pedido perdón, ni lo esperamos, ni lo queremos. Nada de lo que hagan nos va a devolver a nuestro padre.

Él empezó con esta lucha sin saber, ni él ni nadie, que esto iba a acabar así. Creo que estaría muy orgulloso de ver como hemos seguido con su lucha. Al final hemos sacado fuerzas porque luchamos por él, por nosotros y por todas las personas que están por detrás, por todas las personas afectadas por esta enfermedad. Solo queremos que la gente trabaje en buenas condiciones; no puede volver a pasar que Osalan haga un informe y la empresa no le haga ni caso”. ■





1.047,7 euros al mes... por un techo ajeno

El precio medio del alquiler marca un nuevo récord histórico en la CAPV, con Gipuzkoa a la cabeza

> Xabier Zabala

Desde ELA ya veníamos advirtiendo sobre el precio al alza constante de las viviendas en alquiler. Lo hicimos en mayo de 2018 en el artículo titulado *¿Se acerca, acaso, la burbuja de la vivienda en alquiler?* Un año después volvemos a tener un nuevo récord histórico de la renta mensual media de las viviendas en alquiler, récord que año tras año o trimestre tras trimestre se supera.

Los datos de 2019 proporcionados por el Eustat muestran que en la CAPV el precio medio del alquiler del primer trimestre ha sido de 1.047,7 euros, esto es, un 10% mayor que el año anterior, el cual fue de 952,2 euros. No solo ha sido un fenómeno que se ha dado solo en el alquiler, ya que el precio de compraventa de la vivienda también ha aumentado un

8,9% respecto al primer trimestre de 2018.

Si observamos estos datos por territorios nos encontramos con realidades diferentes:

- Gipuzkoa es, con gran diferencia, la que se encuentra en peor lugar, ya que el alquiler medio se sitúa en 1.257,2 euros, con una subida interanual del 16,2%.
- Respecto a Bizkaia, aunque el precio del alquiler sigue siendo desmesurado, de 967,3 euros exactamente, el último año ha aumentado un 0,3%.
- El precio medio del alquiler en Álava, cuyo precio medio ha sido de 882,1 euros, ha subido un 11,8% el último año.

En todo caso, aunque el último año la evolución de cada herrialde haya sido dispar, los datos demuestran que la dinámica o evolución que tienen estos precios en los últimos años no lo son tanto. Desde 2013 se está dando una subida generalizada de los alquileres. En la CAPV, desde 2013 el precio medio del alquiler ha subido un 26,9%. Desglosándolo por territorio, nos damos cuenta, como lo hemos visto anteriormente, que es Gipuzkoa la que se encuentra en peor situación. En este territorio se han incrementado los precios nada menos que un 53%. Las subidas en el resto, aunque menores, son también elevadas, un 18,6% en Álava y un 15,3% en Bizkaia.

Queda demostrado, por tanto, que el precio del alquiler va en aumento, como lo hace el problema y las necesidades de la gente. Es

necesario mencionar que no es casual que en Gipuzkoa el precio se haya incrementado de tal manera. El turismo y las viviendas vacacionales tienen una relación directa con ello. De hecho, podemos afirmar que son en gran medida los causantes del problema.

Por lo tanto, es claro que el mercado no da respuesta a las necesidades básicas de las personas. Es la oferta y demanda, y por tanto la especulación, la que prima por encima de todo. Por eso, desde ELA, creemos que es necesario un cambio estructural en el tema de la vivienda y por ello, proponemos una serie de medidas:

- Garantizar el acceso de todas las personas a una vivienda de alquiler social.
- Además del precio de la vivienda en alquiler, limitar los alquileres vacacionales.
- Impulsar el alquiler social frente a la propiedad.
- Dar ocupación a las viviendas vacías.
- Ordenación territorial y gestión del suelo. ■



EUSKAL HERRIAK KAPITALARI PLANTO!

Gizartea eta planeta, euren osotasunean, inoiz ez bezalako desberditasunera, autoritarismora eta egoera jasangaitzera bideratzen ditu kapitalismoak. Egoera honetaz larrituta, hainbat eragilek – ELA tartean – *Euskal Herriak Kapitalari Planto!* ekimena aurkeztu dute. Ekimen hau hilabetetan lanean diharduen talde eta eragile ezberdinen lanean dinamika da, jatorrizko hazia Euskal Herrian TTIP/CETA Ez! kanpainan duena. Gune honek barne hausnarketa baten ondorioz bere helburu eta lan esparruak birpentsatu ditu, gunea handitz, merkataritza itunez gain, Euskal Herrian korporazio handien botere adierazpenak jarriaz.

EH-k Kapitalari Planto!-ren lan ildoak honakoak izango dira:

- Enpresa transnacionalak: Euskal Herrian nahiz mundu osoan *euskal korporazioen* eraginen inguruko jarraipena egin eta mobilizazioak bideratuko ditugu. Askotan, interes orokorraren aurka, gure lurraldlean instituzioek jarritako alfonbra gorriarekin ezartzen diren transnacionalen jarduerak aztertuko ditugu.
- Pribatizatutako politika publikoak eta korporazioen aldekoak: Gehiengo sozialaren ongizatea mehatxatzen duten kapitalaren aldekoak diren politika publikoak alderatuko ditugu; herri nahiz autonomia mailako pribatizazio prozedurak, besteak beste, edo enpresa handien sarrera, zerga politika, industria politika, enpresa nazioartekotasuna, etab.
- Merkataritza itunak: Gure bizitza eta burujabetasunarekiko kaltegarriak izango dira itunen ondorioak Euskal Herrian, are gehiago mota honetako akordiotan buru den Europar Batasunaren barruan. Itun hauek eta bere ekintza edo ez egiteagatik bermatzen dituzten haien salatzea izango da gure lehentasuna.
- Kapitala defendatzen duten estatuz gai diko erakundeak: Mundu Merkataritzaren Erakundea (MME), Banku Mundiala (BM), Nazioarteko Diru Funtsa (NDF), G-20, G-7, edo Europar Batasuna bera, mundu mailan merkataritza agenda inposatzeko sistemak erabiltzen dituen estatuz gai diko erakundeak dira. Mobilizazioa eta salaketaren bitarteak, hauek guztiak eraisten lagunduko dugu Euskal Herritik, gure herrian ekintzak antolatzen baditzte, batez ere.

Bizik jada 10 urte!

Klimaren aldeko 150 ekintzailek igandetan idekia den supermerkatu bat okupatu dute Baionan

> Xabier Harlouzet

2009an sortua, Bizik bere 10 urteak ospatuko zituen 2019ko ekainaren 14, 15 eta 16ko asteburuan, Baionan. Bertan, asteburu osoan milatik goiti pertsonek parte hartu dute.

Bizi! mugimendua, besteak beste, Alternatiba mugimenduaren sortzailea da eta ANV-COP21 edo zerga ihesaren kontrako Aulki Bahitzaileen sortzaileetarik da, ber maneran, Eusko, euskal tokiko moneta ekologiko eta solidarioa bezalako hainbat alternatiba zehatzentz sortzea lagundu duelarik,... Hainbat hitzaldi, bereziki Geneviève Azam, Corinne Morel Darleux, Joseba Azkarraga edo Alazne Intxauspe Elola-rena iragan dira asteburuan, bai eta ere hitz hartzet ezberdinak azken 10 urteetan Biziaren partaide diren hainbat erakundetako ordezkarietaz.

Biziri beren goresmenak eta sustengua adierazi dutenek Khaled Gaiji, Amis de la Terre-France-eko lehendakaria, Amaia Muñoa eta Mitxel Lakuntza ELA sindikatutik, Fanny Delahalle Alternatiba / ANV-COP21-eko Koordinaketatik, Serge «Poupí» Emmaus Lescar Pau Herrixkatik edo Victor Pachon CADE-eko bozeramailea entzuteko parada ukant dugu.

Besta handia izan zen hiru egunetan zehar, baina aldarrakapenerako beta ere egon zen. Ekainaren 16an, goizez, Emmanuel Macron-en dei parodiko bati erantzunez, azken hau eskupaperen bidez banatua

zen, Biziko ekintzaileak etorri ziren Baionako Hayet bideko Intermarché-ra beren igandetako ohiturazko aisiaidien gozaterat: goizaren erdia ohean pasatzea, birla eta petanka jokoetanarizaitea, lasterka ibiltzea, oinezko ibilaldia, irristailuak eta biziak, arrantza edo mahai-futbola, badmintona edo gozoan alfer egotea, zintzur bustitze-kilikatze eta piknika.

Supermerkatuaren sail ezberdineta bata bestea bezain bitxiak diren eszenak iragan ziren, denek gure bizi eta jendartea prekario eta merkantzia bilakatzea salatzen zutelarik. Horren bidez Bizik salatu nahi izan zuen gehiago lan egin, gehiago kontsumitu eta ondorioz

Los días 14, 15 y 16 de junio Bizi! celebró una gran fiesta en Baiona para celebrar su primera década de vida

gehiago kutsatu gurpil zoroa. Gaur egun gurpil zoro horrek alde dramatikoago bat badu, zeren planetaren oreka ekologiko handiak kinka larrian dira.

Gure bizi baldintzak berreskuratu ditzagun

Ekintza hau, 2009an igandetako idekitzeak plantan ematen hasi berria zen ber Intermarché-an Bizik egin okupazioaren jarraipena izan zen. Ekintza sinbolikoa eta garrantzitsua: ekintza honek burutu zituen Bizi! elkartearren 10. urtemuga ospatzeko Baionan iragan diren 3 eguneko besta eta topaketak. Bizik 10 urte bete ditu, eta ziur beste horrenbeste beteko dituela... gitxienez! ■





Jai handia antolatu zuen Bizik Baionan ekainaren 14, 15 eta 16an bere lehen hamarkada ospatzeko. Irudi hauetan ikusi daitekeen bezala, giroa bikaina izan zen. Ahaztu gabe aldarrikapenerako tarteak ere egon zela, igandeetan jai izateko eskubidearen alde egin zen ekintzan ikusi zen bezala.



Mundua salbatzeko norberaren enpresan eragin

Ekainaren 26a klima aldaketaren aurkako ekintza eguna izango da; klima aldaketa eragiten duten emisioak murrizteko karta bat bidaliko zaie ehunka enpresei

> Ainhara Plazaola

Sindikatuen Nazioarteko Konfederazioak kanpaina aurkeztu du lanpostuak ekologikoagoak eta gizarte ikuspuntutik onargarriak izan daitezen, eta ELAk bat egiten du aldarrikapen honekin. Trantsizio Justuak langileen eta beraien komunitateen etorkizuna eta bizirauteko medioak bermatzen ditu karbono gutxiko ekonomia baterantz egin behar den trantsizioan. Eta hau lortzeko ezinbestekoa da plan bat izatea. Beharrezkoa da enpresek ere anbizio maila handiagoa izatea. Ekonomiarekin gertatzen den bezala, epe luzerako plan enpresarial arduratsu batek, erabakiak gaur hartzea baina etorkizunean pentsatzen hartzea exijitzen du. Ez da zentzuzko kontua soilik, gure ardura ere bada ondorengo belaunaldiek klima aldaketaren zorrik ez jasotzea.

Krisi klimatiko baten aurrean gaude, eta ez da enplegurik egongo planeta hil batean. Egoerari buelta ematea posible da; lantoki guztietai emisioak murriztu behar dira. Hemendik 2020ra klima aldaketaren aukako akzio anbiziotsurik gabe, planetari atzera ezineko kalteak eragingo zaizkio. Ez badira neurri zorrotzak

berehala hartzen, klima aldaketa pertsona guztiontzat mehatxua izango da, eta lurralde asko ez dira bertan bizitzeko moduan egongo.

Enpresei karta

Eragin suntsitzaleak dituzten fenomeno meteorologikoak enpleguak eta bizirauteko baliabideak suntsitzen ari dira. Sufritzen ari gara aurrekaririk gabeko bero boladak, glaziarraren urtzaldia, hotz polarra gure latitudeetan, basoetako suteak eta uholdeak gero eta sarriago, ozeano eta ibai toxikoak, eta biodibertsitatean galera handiak. Itsas maila 20 zentimetro igo da azken mendean. 83 milioi pertsonek migratu behar izan dute klima arrazoiengatik, gerren eta egoera ekonomikoaren ondorioz migratzen dutenak baino gehiago. Agerikoak dira koste sozialak eta ekonomikoak.

Planetaren beroketa 1,5°Cko gehienezko beroketan egonkortu ahal izateko 11 urte geratzen zaizkigu soilik. Hurrengo 10 urteetan karbono dioxido emisioak %50 murriztu behar ditu munduak. 2020an gobernuek emisio murrizketetan konpromiso berriztuak hartu beharko dituzte klimaren inguruko Parisko Akordioa betetzeko. 2019 urte kritikoa izango da ekintzak eskatzeko, baina gobernuek ez dituzte beraien ardurak

behar den anbizioarekin hartzen. Langileak eta beraien komunitateak babestuko dituen trantsizio justurako neurriak hartzen dituzten garapen planak zehaztu behar dituzte gobernuek. Enpresek ere beraien jarduerak klima aldaketara egokitzeo planak egin behar dituzte, plan hauen oinarri berotegi efektuko gasen murrizketa eta trantsizio justurako neurriak izanik.

Honengatik diogu langileok klima aldaketari aurre egiteko akzioaren lehen lerroan gaudela. Enpresarieki lanpostuak klima aldaketara egokitzea exijitzen dugu. Ekainaren 26a lantokietan klima aldaketaren aukako eguna izanik, enpresariei galdegin behar diegu enpresak eta lanpostuak etorkizunean klima aldaketara nola egokitzea aurreikusten duten. Bai langileek, bai enpresak, segurtasuna nahi dugu, eta klima aldaketak zalantzaz betetako etorkizuna dakar. Eskubidea dugu jakiteko enpresak nola aurreikusten duen emisioak murriztea eta enpresarentzat etorkizun jasangarri bat izatea. ■

ELA se suma a la iniciativa Europea para que las empresas reduzcan las emisiones contaminantes

El orgullo no está en venta

ELA reflexionará este 28 de junio sobre la necesidad de conservar las raíces anticapitalistas del movimiento LGTBIQ+

> Landeia

El 28 de junio se celebra el Día del Orgullo LGTBIQ+. Una celebración especial, porque ese día se cumplirán 50 años de los disturbios de Stonewall (New York, Estados Unidos de América), incidentes que marcaron un antes y un después en el movimiento de liberación de los colectivos LGTBIQ+. Ha pasado medio siglo de aquel acontecimiento, 50 años de lucha y movilización en favor de los derechos sexuales de todas las personas. Sin embargo, estos últimos años son varios los colectivos LGTBIQ+ que vienen exigiendo una reflexión sobre la evolución tanto del Día del Orgullo como de diferentes actos que pretenden mercantilizar estas reivindicaciones e identidades, para que unos pocos ganen dinero y las instituciones limpien su cara.

Este será precisamente el tema que ELA abordará en el acto que con motivo del 28 de junio celebrará a partir de las 10:30 en la Escuela Navarra de Teatro, situada en la calle San Agustín de Iruña. En primer lugar **Amets Martínez de Heredia Moreno**, del colectivo Lumagorri, presentará *Harro!*, plataforma compuesta por diversos colectivos LGTBIQ+ de Euskal Herria para impulsar las raíces anticapitalistas de este movimiento. Una plataforma que se presentó el 15 de junio y que según recoge su manifiesto fundacional su objetivo es “conservar



2019ko
EKAINAK
28
SEXU
ASKAPENAREN
NAZIOARTEKO
EGUNA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

las raíces radicales y anticapitalistas frente a los repetidos intentos por asimilar e instrumentalizar la lucha contra el sistema heteropatriarcal. El movimiento LGTBIQ+ de Euskal Herria no está dispuesto a que décadas de lucha por la liberación sexual pretendan ser adulteradas por iniciativas que fingiendo progresismo atacan a la raíz de sus reivindicaciones”.

A continuación, **Jone Bengoetxea**, responsable de Igualdad de ELA, moderará un coloquio en el que participarán tres militantes del colectivo LGTBIQ+: **Almudena Herrera Gómez, Izai Bujanda Cambra y Fermín Zubeldia**

Alemán. “El objetivo tanto de la charla como del coloquio, –destaca Jone Bengoetxea–, es reflexionar sobre la apropiación, limpieza y despolitización de los discursos y prácticas de los colectivos LGTBIQ+ e interesar a nuestra militancia. Por eso hemos elegido *Harrotasuna ez dago salgai. No somos mercancía* como lema de esta jornada. El capitalismo heteropatriarcal pretende blanquear el discurso y la lucha de estos colectivos para lucrarse y lograr grandes beneficios económicos, además de la asimilación cultural superficial de luchas políticas radicales que buscan transformar la sociedad desde su base. Es un tema (o realidad) sobre el que cada vez más colectivos están tomando conciencia y se están organizando”. ■

Kapitalismoak LGTBIQ+ mugimenduaren aldarrikapenak zuritu eta negozio iturri bilakatu nahi ditu. Helburu hauek salatzeko Harro! plataforma sortu dute hainbat elkartek

Gero eta gehiago dira LGTBIQ+ mugimenduaren baitan jatorri erradikal eta antikapitalista berreskuratu nahian antolatzen ari diren kolektiboak

Langileen mesedetan egongo den Europa baten alde

ELAren ordezkaritza zabal batek partu zuen Vienan Europako Sindikatuen Konfederazioaren XIV Kongresuan



> Landeia

Maiatzaren 21etik 24ra Europako Sindikatuen Konfederazioaren XIV. Kongresua egin zen Vienan (Austria). 1973. urtean sortua, Europako konfederazio sindikal handiena da; 45 milioi afiliatu ordezkatzen dituzten 90 sindikatu biltzen ditu. *A fairer Europe for workers* –Langileontzako Europa hobe bat– lelopean parte hartu zuten 700 ordezkariek datozen lau urteetarako ekintza programa erabaki zuten. Gainera, Vienako Manifestua onartu zen, etorkizunari begira jarduera sindikalaren oinarriak jasoko dituen agiria.

Bi izan ziren ELAk Kongresuan izan zituen parte hartzeak. Maiatzaren 22an **Mitxel Lakuntza** idazkari nagusiak Europar eraikuntzaz, demokraziaz eta ultraeskuinaren mehatxuaz hausnartu zuen *Building democracy and a better future of Europe for working people* atalaren baitan –Demokrazia eta langileentzako Europa hobe bat eraikitzen–. Hurrengo egunean nazioarteko arduradun **Laura González de Txabarri** klima aldaketaren inguruan mintzatu zen. ELAren ordezkarri **Eider Azcunaga** eta **Xabi Anza** ere Vienako hitzorduan izan ziren.

Kongresuan oso presente egon zen eskuin muturraren gorakada. Lakuntza bat eterri zen kezka horrekin. “Ultraeskuinak giza-eskubideak (sozialak barne) defendituko dituzten erakundeak suntsitu nahi ditu, baita sindikatuak ere; izan ere, sindikatuak solidaritatea sustatzen du, naziotasun, jatorri eta generoa edozein dela ere. Hori da sindikalismoaren eginkizuna; horregatik gara ultraeskuinarentzako antidotorik onena. Baina eskuineko alderdien politika instituzionalean ere hedatuta daude antikolektibismoa eta erantzun kolektiboen aurkako jarrerak. Hauentzat ere eskubide sozialak eta laboralak traba bat baino ez dira, baita grebak ere”.

ELA participó del 21 al 24 de mayo en el XIV Congreso de la Confederación Europea de Sindicatos celebrada en Viena, la mayor confederacion sindical de Europa

ELAko idazkari nagusiak neofaxismoaren aitzinatzea mehatxu larria dela nabarmendu zuen; baina fenomeno hau ulertzeko kapitalismoaren jatorriari erreparatu beharra dagoela azpimarratu zuen. “Honek eman dio bide mehatxuari, prekaritatea, ezberdinatasuna, pobrezia eta beldurra bultzatzen duten politikak ezarri dituenean. Politika publikoak errrotik aldatu behar dira. Horretarako botere ekonomikoekin konfrontatzea eskatzen diogu ezker politikoari, aberastasuna, enplegua eta etxebizitzaz banatzeko politikak aldarrakatzuz”.

Azkenik, ezker politikoak eta sindikalismoak jendearen benetako arazoetatik gertu egon behar dutela gogorarazi zuen, jende xumearen alde egiteko sortu zirelako, ez botereen alde egiteko.

Klima aldaketa mintzagai

Laura González de Txabarrik klima aldaketaren erronkaz hausnartu zuen. “Aldaketa klimatikoaren aurkako borroka eredu ekonomiko eta sozial berria sortzeko aukera ezin hobea da. Aldaketa hori modu ordenatuan eta demokratikoan egin daiteke, planetaren babesari eta gehiengoaren interes soziallei lehentasuna emanez; edo modu desordenatua eta autoritarioan. Bigarrena gauzatuko balitz planetaren muga fisikoek gainezka egingo lukete desberdinatasun eta injustizia handiagoak ekarriz”. ■



Goxo-goxo eta bero

Economia sozial eraldatzailea bultzatzeko tresna eraginkorra da Koop57

> Unai Oñederra

Ekainak 1. Lehen aldia Sevillan. Noiz eta *Día de las fuerzas armadas* bertan ospatzen zenean. Arazoak hegaldi edo trenak hartzeko. Arazoak aterpea aurkitzeko. Eskerrak Andaluziako Coop57ko Danik bere etxean hartu gintuen... Ez ginen La Giraldan izan, baina bai *Las Tres Mil Viviendasen*, estatuko errenta txikiena duen auzoa. Sevillako auzo desegituratuen. Pobrezia, drogak eta bortxa. Bada, bertan eman ziguten bazkaltzen Asociación Gitana Vencedores-eko lagunek, Sevillan hoberen zainduta dagoen belar artifizialeko futbol zelaian, Pedro elkarteko presidenteak harrotasunez esan zuen moduan. Eta ez ginen lau katu, 80 lagun inguru baizik, Coop57ko estatuko lurralte sail desberdinatik etorriak denak. Bertan egin genuen ere Coop57ren batzar nagusia.

Esku zabalekin hartu gintuen Pedrok. "Auzoa aldatzen ari gara, gu geu,

auzokideak, antolatuta. Gazteei kirola eta heziketa eskaintzen diziegu drogak eta bortxaren ordez. Droga fumadorea zegoen tokian orain gimnasio bat dago. Ezinezkoa litzateke hori Coop57ren finantziazio eta auzokideen lankidertzarik gabe." Vencedores Coop57ko bazkidea da.

Ekainaren 2an, Cadizera bidean, Puerto Realeko igerilekuau gelditu ginen, baina ez bainua hartzeko. Arturok erakutsi zizkigun instalazioak, Cooperactiva udal igerilekuun istorioa kontatzen zigun bitartean. Zerbitzu publiko azpikontratua, azpikontrata aldaketa, kudeaketa penagarria, grebak eta, bat-batean, kiroldegia itxita. "Coop57gatik eta Autonomía Sur kooperatibagatik ez balitz igerileku hau behin betiko itxita legoke. Bainan ikusten duzue: beraien bultzada eta laguntzari esker, hainbat urteetako borroka eta lan ikaragarriaren ondoren, langileok hartu dugu projektua eta aurrera

daramagu, gure gainetik dagoen beste inoren beharrik gabe. Gu gara hau kudeatzen hoberen dakigunak."

"Sindikalki ongi antolatuta zeuden hauek" esan zigun Oscar García Jurado Andaluziako Coop57ko kideak. "Talde kohesio horrek asko lagundu du prozesua arrakastara ekartzen." Ahalduntze prozesua izan da. Ahalduntze prozesua izaten ari da ere *Las Tres Mil Vencedores* elkartearena, auzoarena. Eta ahalduntze prozesu horretan bidelagun: Coop57, finantza zerbitzu etiko eta solidarioen kooperatiba.

SUTEKen adibidea

Euskal Herrian ere ematen dira halako prozesuak. Sevillatik iritsi eta berehala SUTEK kooperatiba sortu berriko hiru langileekin bildu ginan ELAren Donostiako egoitzan. Enpresako jabearen kudeaketa txarrarengatik itxi zen enpresa batetik datozen hiruak. Bat ELAko ordezkaria zen. "Orain arte guk atera badugu lana aurrera, zergatik ez dugu guk sortzen enpresa?" Eta hala egin dute. Ikustekoa zen haien begiek, hitzek eta keinuak transmititzen zuten bizia, gogoa, ilusioa... Guk, Olatukoopeko kideekin batera, Coop57 aurkeztu genien, bestek bestetik: 30 elkartea eta kooperatiba bazkide inguruk osatzen dute –Manu Robles-Arangiz fundazioa tartean– eta norbanakoek ere bat egin dezakete proiektuarekin. Egun 130 pertsona inguru gara bazkide Euskal Herriko Coop57n. Urte amaierarako 200 izatera iritsi nahi dugu. Lotura honetan duzu sarbidea: <https://labur.eus/J5PCE>.

Askotan esaten dugu bizitza erdigunean jarriko duen ekonomia nahi dugula. Gutxitan ikusten ditugu, alta, berau praktikan jartzen duten adibideak. Sevillan nengoenean, eta hona etorri naizenean, galdera berbera egiten zidan hemengo jendeak: beroa? Ikaragarria, Andaluziako Coop57ko kideek egin diguten harrera eta eman diguten tratua. Praktikan erakutsi digute zer den ekonomia sozial eraldatzailea. ■

Gipuzkoako komisaldegi eta epaitegien garbikuntzaz arduratzen diren grebalariek hiru eguneko kanpaldia egin dute Donostian euren egoeraren berri emateko

Soldato arrakalaren aurkako kanpaldia



Gipuzkoako komisaria eta epaitegien garbikuntzaz arduratzen diren emakumeek sufritzen duten soldato arrakalaren aurkako kanpaldia egin zuten ekainaren 17tik 19ra Donostiako Boulevardean. Dagoeneko bederatzi hilabete igaro dira emakume hauek greban hasi zirenetik. Denbora honetan –greba 2018ko irailaren 19an hasi zen– hamaika mobilizazio egin dituzte, baina zerbitzu publiko honen arduradunek ez dute ezer egin gatazka konpontzeko. Greba honen helburua soldato arrakalarekin amaitzea da; hau da, lan bera egiteagatik gizonen eta emakumeen artean dagoen soldaten ezberdintasuna. Komisarietako langileekiko %13ko aldea dago euren soldatatan; %7koa eraikin judizialekiko.

“Lan gatazkaren konponbidea ez doa ez aurrera, ez atzera”, salatzen du ELAk sektorean duen arduradun **Mirari Irurek**. “Gatazka hasi zenetik zerbitzu honen arduradunak diren Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Segurtasun sailak ez dira gurekin biltzeko gai izan. Ez dute onartu nahi soldato arrakala dagoenik. Zerbitzuaren esleipendunak ere –Garbaldi– ez du negoziazio seriorik abian jarri”.

Langileek konponbide bat lortzeko egindako ahalegina txalotzen du Irurek. “Gatazka konpontzeko borondatea agertu dugun bakarrak gu gara. Uko egin diogu hitzarmen honetan soldato arrakalarekin amaitzea, baldin eta

hurrengo hitzarmenean lortzen bazen helburua. Bainha hori ere ez dute nahi izan. Argi utzi genien prest geundela hitzarmen honetan soldato arrakalaren %70a gainditu lukeen akordioa lortzeko. Une batean bazirudien helburu hori lortuko genuela, baina ez da posible izan”.

Grebalariek saiatu dira akordio bat lortzen. Bainha ez da posible izan. Mirari Irurek honen zergatia azaltzen du. “Soldato arrakala egotearen arrazoietako bat toxikotasuna dago. Ez dituzte onartzen toxikotasun eta nekagarritasun plusak, ez dutelako onartzen langileak arrisku hori dutenik. Hala ere, argi dago arrisku hori egon badagoela, eta hala onartzen dute zerbitzu minimoen inguruan egon diren dekretu ezberdinetan”.

Las trabajadoras que se ocupan de la limpieza de comisarías y juzgados de Gipuzkoa llevan nueve meses de huelga para superar la brecha salarial que padecen con respecto al sector de la limpieza viaria

“Eskatzen dugu legeak ezartzen duena aplikatzea. Eurak ez datoz bat gure irakurketarekin, eta ez dute hitzarmenean dagoena aplikatu nahi. Ados jartzen ez garenez zera proposatu diegu: jo dezagun epaitegietara eta epaile batek erabaki dezala nork duen arrazoia. Bainha hori ez ez dute nahi. Gai honen inguruan langileok eskatzen duguna aplikatuko balitz %20, %25 eta %30 bitarteko soldato igoera suposatuko luke arrakala pairatzen dutenen artean”.

Mirari Irurek galdera bat luzatu nahi dio Jaurlaritzari. “Nola da posible azpikontrata publiko batean lan osasuneko gai bat justiziaren esku uztea? Administrazio publikoek aukera ezin hobea dute praktikan jartzeko berdintasunaren alde egiten duten diskurtso politikoa. Legeriak aukera ematen die kontratazio publikoan diskriminazioei aurre egiteko, generokoak barne, gizarte klausulen bidez. Bainha euren jarrera oso bestelakoa da. Bereziki salagarria da Justizia sailak eraikin hauen garbiketa agintzen zuen bi dekretu argitaratu izana. Gatazkaren epaile eta parte bihurtu dira”. ■

ELA busca un acuerdo que regule el derecho de las trabajadoras del comercio al descanso en domingos y festivos

ELA va a impulsar en la Comunidad Autónoma del País Vasco un Acuerdo Marco que regule el derecho al descanso en domingos y festivos para las trabajadoras del comercio. En este sentido, ELA va a convocar a las patronales para que el derecho a la conciliación de la vida laboral y familiar y su derecho al descanso en domingos y festivos sea una realidad no solo práctica, sino recogida en una norma que lo garantice. ELA tiene mayoría absoluta en el comercio en la CAPV, y la realidad es muy diferente a la del resto del estado, donde existen otras mayorías sindicales. La consecuencia es muy clara: en la CAPV el comercio no abre los domingos y festivos y las trabajadoras del sector tienen derecho la conciliación de la vida laboral y familiar y al descanso en esos días.

Zortzi eguneko greba deialdia Gipuzkoako Arte Grafikoen alorrean

Gipuzkoako Arte Grafikoen sektoreko langileek zortzi greba egun deitu dituzte: ekainak 26 eta 27; uztailak 3 eta 4; irailak 25 eta 26; eta urriak 2 eta 3. Urte zailak igaro ondoren, sektorearen egoera ona da, lan-zama handia da, eta hortaz, ELAk argi dauka hitzarmen honetan soldatetatik haratago doazen gaiei ere ekin behar zaiela: baimenen hobekuntza; gizonek emakumeen arteko berdintasuna eraginkorra izan dadin neurriak; lan osasuna bermatzeko neurriak; enplegu kalitatekoa izan dadin neurriak; langileen batez besteko adina gaztetzea; errelebo kontrataua; hitzarmenak lehentasuna izan dezala ezartzeko garaian...

Elorrioko udal garbitzaileek soldata-arrakala salatu dute gizonez jantzita

Elorrioko Udalean garbiketa-lanak egiten dituzten emakume langileak greban daude apirilaren 29tik soldata-arrakalaren aurka. Emakume izate hutsagatik jasotzen duten bazterketa honen aurka hainbat ekintza egin dituzte Elorriion gizonez jantzita, hau da, bizarrez, bibotez eta peto horiez mozorroturik. Horrela erakutsi nahi izan dute jendaurrean emakumeek lan-merkatuan pairatzenten duten diskriminazioa, gizonezkoen aldean. ELA Elorrioko alkate andreatsi langile-kidego horren eskakizunak negoziatzeko eskatzen dio, greba-eskubidea ukatu beharrean. Zerbitzuak federazioko idazkari nagusi Maricruz Elkorok salatzen duenez, "harrigarria da jokabide hori, ezkertiarra, aurrerakoia eta feminista omen den alderdi batean".

Zehazkiago, hamabost langile horiek eskatzen dutena soldata-arrakala murritztea da, Elorrioa garbiketa-lanak egiten dituzten gizonen aldean. Izan ere, 2020an 18.000 euroko soldata izango dute, eta 2021ean 20.000 eurokoa, oso urrutti oraindik beren lankide gizonen soldatetatik. Aldi berean, lanaldiak ere berraztertzeko eskatu dute (denek, batek izan ezik, denbora partzialeko kontratua dute), eta baita orain arte egindako murriketak kentzeko ere.



ELA-Nafarroa rechaza financiar cargos sindicales mediante el Delegado Territorial de Prevención

La patronal CEN y los sindicatos UGT y CCOO han anunciado la intención de recuperar la figura del Delegado Territorial de Prevención de Riesgos Laborales. ELA considera inaceptable el acuerdo suscrito por CEN, UGT y CCOO, y rechaza que el Gobierno de Navarra retome la financiación pública de dicha figura, suprimida en 2015 por demostrarse ineficaz, y que supone la asignación de 400.000 euros del Presupuesto de Navarra de 2019, cuantía similar a la destinada durante toda legislatura al propio Plan de Acción de Salud Laboral.

Los medios públicos en materia de salud laboral deben destinarse a contratar directamente desde la administración personal técnico para hacer frente a la lacra de la siniestralidad y la enfermedad profesional, en lugar de utilizar la prevención como excusa para financiar sindicatos.



Fanco Berardi pentsalari eta filosofo italiarra, Txakur Gorria sormen kultur taldea, Jon Maya dantzaria, Oihana Iguaran bertsolaria, Nagore Legarreta argazkilaria, Ainhoa Vitoria esataria, Eneko Sagardoy aktorea, Maite Arroitajauregi [Mursego] musikaria, Fermín Muguruza musikaria, Jon Garaño zine zuzendaria, Gorka Bereziartua kazetaria, Uxue Alberdi bertsolari eta idazlea, Ander Lipus antzerkigilea, Olatz Salvador musikaria, Azkuna zentroko eta Irungo udal liburutegiko langileak, Hiru Damatxo ideia faktoria, Iñaki Ortiz zientzialaria,

Gorka Otxoa aktorea, Maider Gorostegi esataria, Iker Lauroba musikaria, Iñaki Beraetxe aktore eta bikoiztailea, Sara Cozar aktorea, Unai Iturriaga bertsolaria, Zaldi Urdina arte eskolako kide Jon Elortza, Anartz Zuazua aktorea, Paula Estevez ilustratzailea, Esther Ferrer artista...

Hauek dira Donostiako Ubik liburutegiko bitartekariei publikoki euren elkartasuna adierazi nahi izan dieten euskal kulturako kide batzuk. Ubik-eko langileak greba mugagabearen daude 2018ko abenduaren 22tik, Tabakalerak

prekaritetara kondenatu nahi dituela salatzeko eta lan eta bizi baldintzak duinduko dituen hitzarmen bat lortzeko.

Mila esker modu batean edo bestean Ubik-eko langileei zuen elkartasuna adierazi diezuen guztiei. Mila esker kulturaren prekarietatearen kontra antolatutako hamaika ekimenetan parte hartu duzuten horiei. Ez da erraza horrelako lan gatazka bat aurrera eramatea, baina horrelako babes itzelarekin askoz errazagoa da. Al! Eta ez izan zalantzak gatazka irabazi egingo dugula. Eutsi!



Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129